

BERRIGARA

zenbakia

JARDUN Elkarteak Bergara

1994, maiatzak 13

Musika Eskolak 10 urte jo eta jo



egizabal



MARTENS

LEVI'S 501 XX USA

PEYTON

PANAMA JACK

Maiatzak 25, ASTEAZKENA:
*RUPER ORDORIK*Aren kantaldia
ZABALOTEGIKO ARETOAN, 19.00etan

Maiatzak 26, OSTEAGUNA:
IN FRAGRANTI taldearen eskutik:
"Hala bazan ez bazan sar dadila" antzerkia
ZABALOTEGIKO ARETOAN, 19.00etan


Maiatzak 27, OSTIRALA:
Afari-Jaia, IMUNTZO eta BELOKI trikitilariek alaituta
EUSKALTEGI ONDOKO FRONTOIAN, 21.00etan.

BERGARARA
10.
urteurrena
UDAL
EUSKALTEGIA

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

BERGARAKO
UDAL
EUSKALTEGIA



BERGARAKO
UDALA

Z E R B E R R I D A ?

XABIER ZUBIZARRETA

Santa Marinako parrokoa

- Noiz konponduko da Santa Marinako kanpandorra?

- Bueno apirilaren 29an Diputazioan aurrekontua aurkeztu genuen laguntzak jaso ahal izateko eta beren erantzunaren zain gaude. Jesus Laskurain aparejadoreak 25 milioi pta.ko aurrekontua egin digu eta bertan bi fase jasotzen dira: dorrera alde batetik eta dorrearen jarraipena beharaino bestetik. Esan beharreako da hileroko bigarren domekan egiten dugun diru bilketari esker milioi bat pta. inguru jaso dugula jadanik.

- Diputaziotik zer laguntza espero duzue?

- Urtean elizen obretarako 200 milioi bat



pta.ko partida bat izaten da eta posible da dirulaguntza bapatean edo urtez urte eskuratzea, jasotako eskakizunen arabera. Orain 3 konstruktoreen aurrekontuak aurkeztu beharra daukagu, proiekturik onena aukeratu eta obrekin lehenbailehen hasteko.

"Kanpandorra konpontzeko dirulaguntzen zai gaude"

I T U R R I O N E T I K

Udalari ekitaldi areto egoki bat eskatzeko bilera

Bergarako hainbat kultur taldek bilera egingo dute datorren astelehen arratsaldean Musika Eskolan, Bergarako alkateari eskatzeko Udalak jar dezala martxan kultur ekitaldiak egin ahal izateko areto egoki bat. Ikuskizun haundietarako oraingo lokalek dituzten arazoak direla eta, printzipioz, Musika Eskola, Udal Musika Banda, Aritzeta, Orfeoia, Kultur Ekintza, Xamatx, Oihulari, Virago, Gimnasia Erritmikako taldea, Giartzu, Taun-Taun eta JARDUNeko ordezkariak izan litezkeen aukerak aztertzekeo deituta daude.

E S A N
D U T E

"Gure historiaren arrastuei dagokienez, denetarik dago: ondo zainduta eta ez hain ondo zainduta daudeñak. Orain gutxirarte esango nuke ez direla ondo babestu eta errespetatu baina Ondareari buruzko legea ezarri zenetik gauzak hobera doaz. Askok aurreratu dugu eta oraindik ere lege honen eragina hobeto nabarituko da aurrerantzean"

XABIER ARANBURU
Udal museologoa
EUSKADI IRRATIA

"Txontxongilo batek hegan egin dezake, txontxongiloa hil egin daiteke eta gero, berpiztu, eta benetan hil egiten da eta berriz ere bizi egin daiteke. Gizakiak inoiz ezin izango du hori egin"

PILI GARCIA
TAUN-TAUNeko kidea
RADIO EUSKADI

"Egungo gazte mugimenduaren batasun maila aurrekoarena baino haundiagoa da eta diferentzia ideologikoak ez dira gaindiezinak"

MIKEL ZUBIMENDI
JARRAIko kidea
ARGIA

Errentalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Telefono eta faxa: 76 03 97

Argitaratzaileak:

Argitaratzaileak: Elkartea
Baserreka, 13. 20.570 Bergara.

1988 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Laguntzaileak:

Angel Azkarate, Eduardo Mendibil eta Angel Elkoroberebizbar.

Bilaketa:

Angel Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Angel Azkarate eta Gorka Elorza.

1988 03 97

Laguntzaileak:

Angel Milkeo, Estepan Plazaola, Angel Angel Elkoroberebizbar, Alex Zabalen, Iñaki Eraña, Juan Martin Garatu, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Iñaki Alzela, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Aiztegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Zabala.

Laguntzaileak eta marrazkiak:

Angel Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Garate, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.

Argazkiak:

Argazkiak: POL Argazki Taldea.

Laguntza:

Argazki Taldea.

1988: 3.500 ale.

Laguntza:

Argazki Taldea, E. (Zubillaga, Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Argazki Taldea: SS 50/ 91

1988: 1130-6599


BERRIGARA ez du bere gain hartzen argazkiaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.




Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



EN EL NOMBRE DEL PADRE

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30
(Ikuslearen Eguna).




BRAINDEAD
Osteguna: 20.00.



Zinea

▼▼ 70ko hamarkadaren hasieran gertatutako kasu batetan oinarrituta, Guilfordeko lau irlandarrek Justizia britaniarrarekin izandako auziaren berri ematen zaigu. **Jim Sheridan** zuzendaria eta **Daniel Day Lewis** berriz ere elkarlanean (*Mi pie izquierdo*), eta Urrezko Globoetan lau nominazio.

▼▼ Sitgeseko zine-jaialdian saritua, gusto txarreko erregea omen den **Peter Jackson**ek, txakur bat jaten duen emakume baten kasua azaltzen digu. *Gore* basatia eta beldurraz gain, barre egiteko aukera. **Diana Peñalveren** (*Chicas de boy en día*) partaidetzaz.



Deiak

▼ **Gorka González**en "Flores Silvestres" koadro erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **1942**an jaiotako bergararren anaiarteko eguna ekainaren 4an Arratsaldeko 8etan meza Santa Marinaran eta 9etan afaria Azpeitxi jate-txean. Izen-ematea (maiatzaren 26a baino lehen) Mizpildi okindegia, Edel tapizdenda, Lonbido oinetakodenda edota Goxo-Tokin.

▼ **Elkarrik** antolatutako jaialdia maiatzaren 20an, gaueko 10.30etan, Aretxabaletako Kirol Etxean. Sarasua, Egaña, Amuriza eta Mendizabal bertsolariak, Carcastillo joteroak eta Erramun Martikorena abeslaria. Sarrerak takilan 900 ptan eta aurrez 800 (Antzuolako Surpe tabernan).



Ogia

▼ **Igandea 15:** Mizpildi.



Islada bideogelak antolatuta, maiatzaren 17 eta 18an ondoko bideo emanaldiak izango dira Kultur Etxean: *Eguneroko bizitza* 16.30etan, *Bergarako artxiboa* (16.40), *Mizpirualde Egoitza* (17.00), *Kikaundi ezkontza* (17.25), *Kuriositatea, beira apainduena* (17.40), *San Martzial egun bat?* (18.00), *Edu Murua eta Amaia Agirre* (18.35), *Ilusioa made in Kukuma* (18.55), *Joseba Azkarate eskultorea* (19.10), *Txanbolintxero* (19.30), *Taun-Taun bilduma* (19.45), *Primadera* (20.05) eta *Hori dun afizioa, Zorabio* (20.15).



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 14:** Mozos/Amezua
- ▼ **Igandea 15:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Astelehena 16:** Camacho/Morales.
- ▼ **Asteartea 17:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Asteazkena 18:** Guallar/Español.
- ▼ **Osteguna 19:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Ostirala 20:** Mozos/Irizar.

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Zubiaurren... JAIK BERRINDARTU

Astebukaera honetan Asentzio jaiak

NAHIAN

Aspaldiko ohiturari

jarraituz, atzo osteguna, Asentzio egunez, Zubiaurre-Martoko jaiei hasiera eman zitzaion. 5-7 bat urtez ospatzeke izan ondoren, orain 2 urte auzokoez berriz ere jaiak antolatzeari ekin zioten eta aurreko programa zabala osatu da. Antolaketan ibili den Emilio Ucin San Migel-Pe elkartearen presidenteari hitzetan: "jaiak hobetzen saiatu gara eta edade guztientzako ekitaldiak ekartzea lortu dugula esango nuke: rock jaialdia, herri bazkaria igandean, pintura lehiaketa... etab. Era berean zaborren bazkaria eta Beti Alai elkartearen laguntzaz ematen diren salda eta txokolatea egongo dira eta berriarri bertara burbiltzeko deia zabaldu nahi nuke"

Programan azaltzen ez diren bi ekitaldi izango dira astebukaeran Zubiaurre-Martokan: "ostiralean, sorpresa modura, Oñatiko Hator musika taldearekin dantzaldia izango da gaueko 10.30-etan, eta larunbatean, 19.30etan Musika Eskolako txaranga izango da auzoa alaitzen".

Jaiak 725.000 pzta. in-



Julio Kageta izango da, Ehun Kilo eta Ume Gaiztuak taldeekin batera zapatu gaezan.

guruko aurrekontua dute: "Udalak 65.000 pzta. eman dizkigu eta gaitzaintzekoa dendetan eta etxez etxe bildutako diruaz osatu nahi da. Aurreko urtetatik Jai Bartzordeak bazuen diru bat gordeta eta iaz 400.000 pezeta inguru geratu ziren sobran. Aurrekontuko zatirik haundiena rock jaialdiak eramango du, 500.000 pzta.rekin" azaldu digu Ucin.

Emilio Ucinen ustez "aurrerantzean gazteek jaien antolaketaren ardura hartu beharko lukete".

OSTIRALA, 13:

18.30: Etxafleroen jaurtiketa eta ondoren buruhandiak.

19.30: Kalejira, Musika Eskolako soinu-joleekin.

21.30: Su-haundiak.

LARUNBATA, 14:

09.00: "Kobok" dultzaineroekin kalejira.

10.00: Haurrentzat pintura lehiaketa. Ondoren salda.

14.30: Jubilatuentzat bazkaria. Ondoren Mus Txapelketa.

19.00: Buruhandiak. Ondoren kalejira soinu-joleekin.

22.00: Rock jaialdia: Julio Kageta, Ehun Kilo, Ume Gaiztuak.

IGANDEA, 15:

08.30: Goiz eresia. Ondoren, txokolate jana eta "Kobok".

09.45: San Migelera igoera. Ondoren meza.

11.45: Mendiko bizikleta proba. Ondoren salda.

12.15: Dantzariak eta soinu-joleak.

13.30: Auzora jeitsiera eta soka tira.

14.30: Auzokoentzat bazkaria.

19.00: Kalejira Musika Eskolako soinu-joleekin.

20.00: Jai amaieren txupinazoa.



LASA

Jatetxea

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

Iletxo

Ileapaindegi
mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

Erdara hutsez kartoia eta papela batzeko kontenedore berriak

Toki gutxitan egingo zen euskararen normalkuntza bultzatzeko azkenengo urteetan Deba Garaian egin dena bezalako gizarte ahaleginik. Eta aitortu beharra dago ahalegin horretan partaide izan direla bai bailarako udalak eta baita mugimendu herritarrak ere.

Hala ere, ematen duenez, Deba Garaiko Udalen Mankomunitatea ez da horretaz konturatu, edo ez dio inportantzia haundirik ematen... edo ez du ahalegin horretan partaide izateko borondate haundiegirik. Ezin dugu bestela ulertu zergatik jarri dituen erdara hutsez errotulatu bailarako herri guztietan kartoia eta papela batzeko jarri dituen kontenedore berriak.

Eta ulertu ezin badugu ere, sinistu nahi genuke hori egin izatearen arrazoiak ez direla goian aipatu ditugunak, eta lehen bait lehen emango zaiola arazo honi konponbidea, eta... aurrerantzean Manko-

munitatea ere Deba Garaian euskararen normalkuntza lortzeko ahaleginean partaide izango dela. Edo oraingoan erakutsi duena baino partaidegoa, behintzat.

DEBAGUNE, DEBA GARAICO EUSKARA ELKARTEEN ELKARGOA, (AED, AXTROKI, IDOLAZ, JARDUN, LAIXAN ETA LORAMENDI ELKARTEAK)

Bergarako anbulatorioa

Beharbada, baliabide urriak ditu Osakidetzako zerbitzu honek gure herrian. Baina nire esperientzia pertsonala kontutan harturik, publiko egin nahi dut osasun arazoak ditugunean zentroan atenditzen gaituzten langileekiko nire eskerrona eta profesionalitatearen aitortpena.

Arrate medikua -pediatra- aipatu nahi nuke, miresgria baita bere kontsultan duen dedikazioa, eta baita bere laguntzailea den Altuberrera ere.

SUT (edo ATS) lanetan dabilen

Elena ere goraipatu nahi nuke, nire ama diabetikoa luzaro zaindu behar harragatik ezagutzeko aukera izan dudana. Oso positibotzat jotzen dut Larrialdietarako ekipoaren disponibilitatea ere, inoiz beraiengana jo beharra ere izan dut eta.

Eta ez dut zalantzan jartzen, edo behintzat hala izatea espero dut Bergarako anbulatorioiko beste langile guztiak -ezagutu beharrik izan ez badut ere- niri kaso egin didate nak bezalakoak izango direla.

ANA ILARDUYA


Zuzenketa

Santikruz egunean, maiatzaren 3an, eguerdiz, eta aurreko urteetan bezala, Juan Idigorasek letxugan kanpaia jo zuen, nahiz eta aurtengo Natalio Juaristiren laguntzaz egin izan. Iraileko Santikruz egunean 14an, berriz ere joko da letxugan kanpaia Santa Marinan.

MIRENXU GOÑI

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **Solidaritza auzolana**

18 urtetik gorakoei zuzendutako Hirugarren munduaren solidaritza 3. auzolana martxan jarri da, hirugarren munduko problematika eta errealitateari hurbildu eta auzolana bultzatzeko. Abuztuaren 1etik 15era Elosuko etxe batetan bilduko dira partaide guztiak. Izena emateko deitu 76 30 61 telefonora uztailaren 11a baino lehen.

◆ **Zaharrentzako programa**

Diputazioak eta Gizarte Ongizate Sailak bere familiarekin bizi diren zaharrak oporraldian, denboraldi batean, Eibarko Egoitzara joateko programa martxan jarri dute. Interesatuak Udaleko Gizarte Laguntzailaren Zerbitzura joan beharko dute astelehen, asteazken edota ostiraletan (txanda hartu eta gero).

◆ **Gerontologia ikastaroak**

ICTE Institutuak zaharrak zaindu ahal izateko ikastaroa iragarri du ekainerako. Argibide gehiago 79 02 11 telefonoan.

Lurralde antolakuntzari alegazioak

Mankomunitateko Hirigintza Zerbitzuan Udala baja emango da

Asteleheneko Plenon, Udalak 11 milioi pta.-ko inbertsioa onartu zuen Diputazioak Osintxun egingo duen depositotik, Urkulutik, ura jasotzeko egin beharreko kanalizazio lanak egiteko. EAJ, PSE-EE eta Eak alde bota zuten eta HBk ezezkoa eman zuen. Boto esplikazioan Jesus Mari Garitanok (HB), *"nabiz eta ondo ikusi, 1994ko udal aurrekontuak oraindik onartuta ez daudenez ezetza ematea erabaki dugu"* adierazi zuen.

Era berean, Euskal Autonomi Elkarteke Lurralde Antolakuntzari buruzko erizpideei zenbait alegazio egitea onartu zen. HBk ezezkoa eman zuen ez dagoelako ados eraman den prozedurarekin. Garitanoren ustez, *"alegazioak Plenotik pasabarko lirateke eta ez alkatearen dekretu bidez"*. Alegazioetan ondokoak eskatzen dira: goi mailako iraskuntzazko ekipamendu unibertsitarioen artean Bergarako UNED espreski azaltzea, Karakate-Irimo mendate eremua aisialdirako guneen artean sartzea, Deba Garaiko Area Funtzionalak inguruan sortzen diren industriren finkapena bere baitan hartzeko lurazalera eta giza-gaitasuna

baduela aitortzea, biztanlegoaren jeitsiera finkatzeko erabili izan diren datuak zuzenak ez direla adieraztea, Lurraldearen Plan Sektorial eta Partzialtan udal administrazioan parte hartzea zuzena izatea edota Gune Historikoetako erreabilitazioari dagokion arloan Bergarako Udalerrria lehen-tasunezko aktuzioen artean finkatzea.

Mankomunitatetik kanpo

Bestalde, Udalak, EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko eta HBren abstentzioarekin, Deba Garaiko Mankomunitatean Hirigintza

Zerbitzuan baja ematea erabaki zuen. Garitanok (HB), boto esplikazioan esan zuenez, *"kriterio horrekin beste komisio batzuk ere kendu beharko lirateke"*. Xabier Gallastegi (EAJ) Hirigintza Batzordeburuaren hitzetan, *"baja ematea erabaki dugu orain udal bakoitzak bere teknikoak dauzkalako eta bere zentzua galdu duelako. Bestalde, Mankomunitate mailan lurralde antolaketarako batzorde bat eratu nahi da"*.

Era berean, astelehenan, Xabier Loiola Udaleko idazkari izateko Diputazioari proposamena egitea erabaki zuen.



Urkulutik Osintxura ura bideratzeko lanek 11 milioi balioko dute.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



Barrenkale 31

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF SERVICE-A

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

◆ Objezio fiskala

BOTA Bergarako Objetore Talde Antimilitaristak Objezio Fiskala egin nahi duten guztiek Zabalotegi dorreko behean informazioa jaso dezaketela jakin arazi nahi du. Objezio Fiskala Zerga Aitorpenaren zati bat giza aurrerakuntza solidarioaren alde lan egiten duten erakundeei bideratzean datza, militarizatu gabeko gizarte bat aldarrikatuz. Zerga aitorpenen fondoan desbideratzearekin hainbat taldek beharrezko laguntza jaso dezakete.

Bestalde, intsumisoen aurkako epaiketekin jarraituz, maiatzaren 31n Roberto Etxaniz eta ekainaren 2an Ion Lazkano epaituko dituzte.

◆ Komite internazionalistak

Komite Internazionalistak taldeak 1994eko udan El Salvador, Cuba, Peru, Guatemala, Nicaragua edota Palestinan laguntza eskeintzeko kanpainari ekin dio. Informazio gehiago 88 49 26 telefonoan.

◆ Musika Eskola

Datorren ikasturteari begira, matrikula epea zabaldu da Musika Eskolan. Interesatuak bertara jo edota 76 57 80 telefonora deitu dezakete.



Brusa lehiaketan herriko koadrila guztiek parte hartu ahal izango dute.

Brusak, patinak eta baltsak Pazkuetan

Pazkuetan gazte eta nagusientzat hainbat lehiaketa

JARDUN elkarteak, aurreko urteetan bezala, brusa lehiaketa antolatu du aurtengo Pazkuetarako. Kuadrilek jaietako brusa bat, koadrilaren argazki bat (21.5 x 15 zm.) eta esaldi bat euskaraz (gehienez hiru lerro eta jaien ingurukoa) aurkeztu beharko dute maiatzaren 20a baino lehen. Horrela ez bada, maiatzaren 20 eta 21ean, 6etatik 8etara, argazkia aterako zaie hori egiterik izan ez dutenei. Bi talde bereiztuko dira: 14 urte artekoentzako lehena eta hortik gorakoena bigarrena. Sari banaketa asteartean, 13.30etan egingo da.

Bestalde, JARDUNeko Gazte Taldeak antolatuta, patin eta patinete lasterketa izango da Pazkuetako astelehenean 7etan, Bideberriin. Izen-ematea orduerdi lehenago egingo da eta partaide guztiek (Bergarakoa izatea beharrezkoa da) kamiseta bana emango zaie eta lehen hirurek 6.000, 4.000 eta 2.000 pta.ko sariak jasoko dituzte.

Era berean, asteartean ospatuko den Debako VI. Baltsa jeitsieran parte hartzeko deia luzatu dute Eguzki, Beti-Busti eta JARDUNeko Irabazleek eta baltsa politenak 15.000 pta.ko saria jasoko dute.

LONBIDE

OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ETXAGI

Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Zapatu honetan ezkontzogatik itxita.


Barkatu eragozpenak.

MEKOLALDE

☎ 76 50 18

taberna

Mekolalde



Museoen Eguna ospatzeko, Bergaraka ezagutzeko aukera izango da asteazkenean.

Museoaren atek zabalik

Asteazkenerako lau bisita gidatu iragarri dira

Asteazkenean ospatuko den Nazioarteko Museoen Eguna dela eta, Bergarako Erret Mintegiko Museoak bere atek zabalduko dizkie herritarrei, museoko bilduma zientifikoa ezagutzeko aukera izango delarik. Aurten "Museoak: bere atek zabalik" lemapean ospatuko da Nazioarteko Museoen Eguna eta Udalak, Diputazioko Kultura eta Turismo Departamentuaren laguntzaz, lau bisita gidatu iragarri ditu.

Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan, "museoan egiten ari diren txukunketa lanek eta espazio arazoek ezinezkoa egiten

dute bilduma zientifikoa egunero publikoarentzako edota ikastetxeentzat zabaltzea baina asteazkenean museoan diren 3.000 aleekin egiten ari diren lanen berri emango zaie bisitariei". Museoan zientzia aparailuak, zoologia, giza anatomia, mineralogia edota paleontologia piezak daude.

Asteazkeneko bisitak 17.45, 18.15, 18.45 eta 19.15etan egingo dira eta bisita bakoitzeko gehienez 25 laguneko taldeak osatuko dira. Interesatuak 5 minutu lehenago Aranzadi Ikastolako sarreran bilduko dira.

◆ Udaleku irekiak

Kikaundik uztailean zehar euskaraz mintzatu eta ondo pasatzeko aukera emango die eskolaurreko lehen mailatik O.H.O.ko 8. mailara bitarteko haurrei, jolasak, mendi-irteerak edota eskulanak egiteko aukera izango dutelarik. Interesatuak maiatzaren 31 baino lehen eman behar dute izena Kikaundi Ludotekan (Aranzadi Ikastolako 2. pisuan) eta kuota 3.000 pta.ko izango da. Plaza mugatuak.

◆ Herri Batasuna

Herri Batasunak dei egiten die bere jarraitzaileei asteazkenean, 19.30etan, "Hauteskundeak" gaiarekin egingo den herri batzarrean parte hartzeko. Bestalde, ekainaren 12an egingo diren Hauteskunde Europarrak direla eta, Korreozko botoari buruzko informazioa emango da Arrano elkartean 11etatik ordubatera eta 17.30etatik 19.30etara.

◆ EAJren bulegoa

Ekainaren 12ko hauteskunde Europarrak direla eta, EAJk korreozko botoa tramitatzeko bulego bat jarri du martxan Batzokian, 12etatik ordubatera eta 19.00etatik 21.00etara.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

IPINTZA INSTITUTUA

AURREINSKRIPZIO EPEA

IKASTETXE HONETAN 94/95 IKASTURTEAN BBB ETA UBI EGIN NAHI DUTEN IKASLEEK MAIATZAREN 4TIK 18RA BITARTEAN EGIN BEHAR DUTE AURREINSKRIPZIOA. ☎ 76 31 42.

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

A

zoka plaza berriko obrak orain dela hilabete batzuk amaitu baziren ere, oraindik itxita dago eta zehazteke dago noiz zabalduko den. Merkatu berriaren kostua 300 milioi pezetakoa izan da, baina merkatuko postuak adjudikatzekoan eskari bakarra aurkeztu da eta eskaria egin duenak atzera egin du. Oraingo merkatuko dendariak ez daude ados azoka plaza berriko postuen prezioarekin eta, bitartean, hutsik dago Katabiako edifizio berria. Negozia ketan jarraitzen dute saltzaileak eta Victoriano Gallastegi alkateak.

BERGARAKO UDAL AZOKAREN KOSTUA

• Dragados y Construcciones S.A. enpresari 91ko apirilean adjudikatua (Jose Luis Elkorok)	195.260.262
• Ejekuzioa, proiektuari lotzearen.	22.803.552

ADJUDIKAZIOAN SARTUTA EZ ZEUDEN PARTIDAK

• Instalazio elektrikoa legeztatzeko proiektua.	410.078
• Obra zibila, Iberdrola Transformazio Zentrua eta hornidura.	3.591.750
• Arkitektuaren lan-saria.	4.685.706
• Aparejadorearen lan-saria.	4.098.391
• Harri naturala fatxadan jartzea (Gobernu honen erabakia).	21.811.018
• Postutako eta pasilotako lurra inpermeabilizatzea.	6.607.149
• Dorrearen teiltuaren pisua arintzeko sistema berriaren eraikuntza.	3.894.046
• Melanina-panelak jartzea, dorrea barrutik estaltzeko.	2.695.736
• Dorrearen barne-isolamendua eta inpermeabilizatzea, poliuretanoz eta asfaltoz.	948.304
• Merkurioko argia jartzea, proiektatuen orde.	335.012
• Zorua, komunak eta sotoaren banaketak eta beste batzuk egokitzea.	14.895.758
• Garaje-eraikuntza Katabiako bizilagunentzat.	9.788.074
• Katabiako hormaren errematerako murru-txapela.	458.368
• Ibilgailuen sarrera.	425.465
• Garitanoren lantoki-ohia egokitzea.	162.253
• Katabiako atarietarako behin-behineko sarrera, obrak irauten duen bitartean.	837.170
• Katabiako etxeen aurreko eustorma kareharriz txapeatzea.	2.016.816
• Eraikuntzaren inguruan dagoen espaloiarene sestra rektifikatzea.	1.420.860
• Eraikuntzaren inguruan telefonoa sartzeko obra zibila.	2.549.691
• AZOKAREN KOSTUA GUZTIRA.	299.695.459

Saltzaileek eskari berria egin diote alkateari, baina Udalak ez du oraindik erantzunik eman. Udalak, Osoko Bilkuran onartu eta gero, 4.000.000 pezetako prezioa jarri dio postu bakoitzari. Kontuak-kontu Udalaren asmoa oraingo merkatua hil honen bukaeran ixtea da. Zer gertatuko da ondoren? Hori jakiteke dago. **BERRIGARAK**, azoka plaza berria egitea Udalari kostatu zaiona azaltzen du orrialde hauetan. Azken partean, berriz, Bergarako azokaren eta Ermukoaren zenbait datu konparatzen dira. Agertzen den informazio guztia Udalak emandako moduan agertzen da.

AZOKAREN KOSTUTIK KENDU BEHARREKO PARTIDAK, POSTU BAKOITZAREN KOSTEAN ERAGINIK EZ DUTELA IZAN BEHAR ULERTZEARREN

• Eusko Jaurlaritzaren subentzioa.	30.380.000
• Katabiako biztanleen garajeen urbanizazioa.	10.301.263
• Fatxadako harria.	21.811.018
• Azoka zaharraren salmenta, zenbatekoa 1992-12-31ra eguneratuz.	60.253.838
• KENDU BEHARREKO ZENBATEKOA.	122.746.119

POSTU BAKOITZAREN KOSTUA

• Azokaren kostua guztira.	299.695.459
• Kendu beharreko partidak.	122.746.119
• POSTUEN KOSTUA GUZTIRA.	176.949.340
• POSTU BAKOITZAREN KOSTUA 176.949.340 / 26.	6.805.744

UDALAREN ESKEINTZA

• Eraikitako azalera guztira: 2.404 m2.	
• Udalak sotoan gorde duen azalera, postu bakoitzari dagokion prezioa jeisteko (%39,39): 947 m2.	
• Postuendako azalera (%60,61): 1.457 m2.	
• Postuetan eragina duen dirutza.	176.949.340
• Postu guztien kostua 176.949.340 x (% 60,61).	107.248.995
• Postu bakoitzari dagokion kostua 107.248.995 / 26.	4.124.961

PLENOAK ONARTUTAKO UDALAREN ESKEINTZA

• Postu bategatik	4.000.000
• Bigarren postuarengatik	3.800.000
• Hirugarren postuarengatik	3.700.000
ORDAINTZEKO MODUA:	
- %75a ADJUDIKAZIOA EGITEN DENEAN	
- %25a 10 URTETARA, ZERGA-INTERESAREKIN	

LABURPENA

• Azokaren kostua guztira.	299.695.459
KENDU BEHARREKO PARTIDAK:	
• Eusko Jaurlaritzaren subentzioa.	-30.380.000
• Udalaren esku dauden partidak. 92.366.119	
• Udalak erabiltzeko gorde den azalaren zenbatekoa. 69.700.345	
• UDALAREN ESKU DAGOEN ZENBATEKOA GUZTIRA.	-162.066.464
- GUZTIRA KENDU BEHARREKOA.	192.446.464
- POSTUEN KOSTUA GUZTIRA.	107.248.995
• POSTU BAKOITZAREN KOSTUA 107.248.995 / 26.	4.124.961

MODULOEN KOSTOAREN KUADRO KONPARATIBOA

BIZTANLERIA	POSTUAREN KOSTUA	MODULOAREN m2	m2 KOSTUA
BERGARA	4.000.000	17,75	225.352
ERMUA	2.800.000	11,345	245.804

1993ko MERKATUEN TASAK

- BERGARA

11,345 m² x 968 = 10.982 pzta. hiruhilero / 3. = 3.661 pzta./hil./mod.

- ERMUA

11.345 m². = 17.160 pzta/hil./mod.

- BERGARA - Fijoak ez diren postuak

4 postuen batzaz-bestekoa, ordenantza 7.084 pzta hiruhilero / 3. = 2.361 pzta./hil.

- ERMUA

Kostea = 4.400 pzta/hil.

POSTU BAKOITZAK DITUEN MATERIALAK

- Terrazoa zoruan.
- Azuleiuak hormetan.
- Babes-kuadroa:
 - Diferentziala.
 - Magnetotermiko tetrapolarra.
 - Magnetotermiko bifasikoak, 2 unitate.
- 6 entxufe, 16 A, bifasikoak.
- 4 entxufe trifasikoak, 25 A.
- Telefono hartunerako unitate bat.
- Larrialdietarako argia, unitate bat.
- 2 argi-puntu sapaian, beren etengailuekin.
- Ur-hartune bat, ixteko giltzarekin eta kontadorearekin.
- Arraskaren isurbide bat.
- Hozkailuen isurbide bat.
- Hustubide zentral bat.
- Aluminioko pertsiana, segurtasun itxieraduna.

TIPO DOBLEA


Beste moduloen azalera gordina: **17,75 m²**

1. Azalera: **1,66 m²**

2. Azalera: **15,06 m²**

3. Azalera: **1,03 m²**

"In situ" egindako neurketa, 1994.eko otsailean.



Osasuna

Eguzkiaren eragina...

- Zein da lehen eguzkiekin egon daitekeen arriskua?

- Arriskurik haundiena eguzkiaren erreduarak lirateke. Insolazioak, berriaz, ez dira hain normalak. Beraz, komenigarria izaten da eguzkia pixkanaka pixkanaka hartzen joatea, horrela gure organismoa moldatzen joango baita eguzkiaren erradiatziora. Eguzkiaren protekziorako kremak erabiltzea ondo dator beti eta zenbat eta larruazal zuriagoa orduan eta protekzio altuagoko kremak erabili. Beltzaranez, berriaz, arrisku gutxiago daukate eta frogatuta dago euren artean larruazalaren minbizi kasuak urriagoak direla. Egia da, larruazalaren minbizi kasuak gero eta ugariagoak dira eguzkia hartzea "modan" jarri zenetik baina hori pertsona bakoitzaren arabera izaten da. Ez dago erlazio-ondorio harremanik eguzkia denbora luzez hartu eta minbizi sortzearen artean.

- Erreduarak zein motatakoak izan daitezke?

- Lehen mailako erredurekin larruazala gorritu eta berotu egiten da eta ur hotzeko painuak ematea ondo dator kasu horietan. Eta maskuriak (ampollak) sortzen badira orduan 2. mailako erreduarak izan daitezke eta tratamendu zehatzago bat



ITZIAR RICO
(medikua)

eman beharra dago. Hirugarren mailako erredurei dagokienez, oso zaila da ematea. Eta insolazioak ebitatzeko protekzio modura txapel bat erabiltzea komeni da, bestela burukomina, sukarra... eman daitezke. Eta erreduarak izaten direnean

"Onena eguzkia goizeko lehen orduan eta arratsaldeko azkenetan hartzea da"



Eguzkiaren arriskurik haundiena 13.00-16.00 bitartean dago.

onena keizpean egotea da larruazala rejeneratzen den bitartean. Bestalde begiak ere eguzkitarako betaurrekoekin babes daitezke.

- Eguzki orduak ere badute zeresanik...

- Onena goizeko lehen orduan eta arratsaldeko azkenetan hartzea da. Arriskurik haundiena arratsaldeko ordu batetik laurak bitartean egoten da orduan eguzki izpiek guztiz bertikalki jutzen gaituztelako. Era berean egun lainotsuetan ere kontuz ibili behar da, eguzki izpiek lainoak zeharkatu eta ia eragin berdina daukatelako. Egundin urdinetan bezala, prekauzioak hartu behar dira. Orduetaz aparte, erropek ere badute zeri-kusirik: hobe da oihal naturaleko jantziak (algodoia, haria... etab) erabiltzea larruazalak hobeto "bartzan duelako arnasa". Jantzi sintetikoekin, izerdi gehiago botatzen duzu eta ez duzu freskotasun sentsaziorik.

- Eta eguzkia hartu eta gero, zer?

- Erreduarrik ez dagoenean hidratanteren bat ematea ondo dago. Babeserako kremen artean ez dagoela diferentzia handirik eta protekzio normalena, jende arruntarentzat, 8 zenbakikoa dela, haurrek altuagoa behar duten arren.

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**

Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

EUSKALDUNON

J A I A 9 4



MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

EUSKALDUNON **Egunkaria**

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO -
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK -
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK -
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - MAIXA ETA ITZIAR -
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

Aurtengo ikasturtean Musika Eskolan 480 ikasle dabilta eta askok solfeoa eta instrumentu bat jotzen dutenez, eskolan matrikulatuen kopurua 662ra heltzen da. Aurreko urteekin konparatuz ikasleek gorantz egin dute eta horren arrazoia aurten 4 urtetik 7 urtera bitarteko haurrak onartu dituztelako izan da. *"Haurrak lenguaia musikala ikasten hasi baino lehen, aurre ikasketa batzuren bitartez prestatzen ditugu. Eta ez dira ume txikiak aurten sartu diren bakarrik, ikasturte hasieran deialdi bat zabaldu baitzen musika ikasi nahi zuten helduentzat. Erantzuna nabiko ona izan da, baina asko ez dira enteratu eta datorren urterako heldu gehiago izatea espero dugu"* esan digu Alberto Laskurainek.

Musika Eskolako ikasleei begiratu, 171 haurrak dira eta emakumezkoak 309. Hezkuntza eskaintzari dagokionez aurten LOGSEa dela eta, Musika Eskolara joaten diren ikasleek ezin dute, bertan, titulorik lortu. Eskolan ikasi eta ondoren kontserbatoriora joan behar dute tituloa eskuratzeko. Halere hainbat ikasle aintzinako plangintzan dago sartuta eta horiek, oraindik badute eskolan azterketak egiteko aukerarik.

Hezkuntza legearen



Musika Eskola, herriko musikaren motorra.

Musika Eskolak 10 urte 450 musikari gazte

Musika Eskolak 1983-84 ikasturtean eman zituen lehen pausuak. Hasierako zailtasunak gaindituz urtez urte eskolak talde eta ikuskizun berriak eskaini izan ditu. Aurten bere 10. urtemuga beteko du eta eskolaren gaurko egoeraren berri jakiteko Alberto Laskurainekin izan gara berriketan.

aldaketak, bestalde, plan pedagogiko berria egitera bultzatu du eskola eta datorren ikasturterako amaituta izango da. *"Plan pedagogikoarekin, lehen 5 urteko solfeoa zenari, orain lenguaia musikala deitzen diogu. Lehen solfeoa eta instrumentoa jotzea bakoitza bere alde-*

tik ziboan. Datorren urtetik aurrera, aldiz, ikasleari instrumentoa, koral eta solfeoa dena nabastuta emango zaio" dio Laskurainek. Guztira 20 instrumento ezberdin, bandan eta orkestran jotzen direnak, ikasteko aukera dago. Horietaz gain, pianoa, akordeoia, soinu-

a, kitarra, flauta eta txistu ikasteko aukera dago. Irakasten diren instrumentoak ez dira asko aldatu eta azkenaldian herri rock talde asko sortzen daudenez, instrumento berriak sartzekotan dauden galdetu diogu Laskuraini. *"Plan berriari badago beste musika esti-*

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

lo batzuk ikasteko auke-
ra, baina guk ez dauka-
gu ez lokalik eta ezta po-
sibilitaterik ere, pop edo
rock irakasteko. Eskaera
bandia baldin balego,
pentsatuko genuke. Bai-
na bateria edo kitarra
elektrikoa irakasteko lo-
kal insonorizatuak behar
dira eta guk ez daukagu".

Erakuntza zaharkitua

Musika Eskola hasi ze-
netik Mariaren Lagundiko
egoitzan daude eta euren-
a ez den arren, monjekin
egindako akordio bati es-
ker, musika erakusten
den bitartean bertan jar-
raituko dute. Halere Las-
kurainek dioenez lokalak
berriztu behar handia du.
"Poliki-poliki barruko ge-
lak eta pisuak konpon-
tzen joan gara. Arazo
nagusienetakoa, geletako
teilatuak altuak direla da
eta neguan toki oso hotza
dela. Gelak ez daude in-
sonorizatuta eta klasea
ematen ari zarenean bes-
tearena entzuten duzu.
Komunak ere ez daude
egoera oso onean eta
kanpoko fatxada oso ego-
era larrian dago".

Musika Eskolan 21 ira-
kasle dabilta eta Bilbo-
tik, Donostiatik etortzen
dira. Baina Laskurainek
harro harro esan digunez,
Musika Eskolan ikasitako
bi irakasle dabilta eskola
ematen. Musika irakaste-
ko metodologia erabat al-
datu da azken 10 urteetan
eta aintzinako metodo-

gia, gauzak buruz ikaste-
arena, alde batera utzi
dute. "Lehen dena buruz
ikasi behar zen eta ez zen
ulertzen ezer. Hori era-
bat aldatu dugu eta hau-
rrekin musika ikasteko
jolasak etab erabiltzen
ditugu, helburua musika
modu erakargarrian ira-
kastea da" diosku Lasku-
rainek.

Aurrekontuari dagoki-
onez aurten Musika Es-
kolak 35 miloi pzta izan
du bere helburuak bete-
tzeko. Hiru diru iturri na-
gusi ditezte: %41a ikasle-
ek ordaintzen duten kuo-
tekin, %11 Eusko Jaurla-
ritzatik dator eta %36a
Udaletik jasotzen dute.
Falta den %12a kontzertu
eta beste ekintza batzu-
tatik ateratzen dute.

Udaberriko kontzertua

Datorren maiatzaren 29an Musika Eskolak udaberriko jai-kontzertua ospatuko du. Kontzertuan zehar **M. Jesus Rekalde, Begoña Rekalde** eta **Amparo Navarro** monjei omenaldi bat eskainiko zaie, urte askotan debalde eskola ematen aritu izan dira eta. Jai egunari dagoikonez egitaraua goizeko 10,30etan hasiko da Gazte Bandaren kalejirarekin. Egurdiko 12,30etan, Espoioian, eskolako 4 taldek kontzertua eskainiko dute eta 14,30 etan herri bazkaria izango da. Edozein joan daiteke bazkarira eta txartelak Musika Eskolan edo Lazkano zapata dendan izango dira salgai. Bazkal ostean eskolako Jazz taldearekin eta Ibaiak taldearekin berbena izango da. Egunean zehar eskolari laguntza emateko pegatinak salgai izango dira borondatearen truke.



Alberto Laskurain, Musika Eskolako zuzendaria: "Datorren ikasturtean plan pedagogiko berriarekin hasiko gara".

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- ESKAINTZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K

ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

aupa jaixak...

BERGARAKO JAIKAK

Kaixo lagunak!
Udaberria iritsi zaigu eta jakina denez, udaberriarekin batera badatoz jaiak! Hau da denok itxaroten dugun unea.
Jakina denez pasa zaizkigu Labegarietako jaiak, orain badatoz Zubiaurrekoak eta, noski, nola ez Bergarakoak. Herriko jaiak!
Labegarietakoak pasa dira, arraroa bada ere eguraldi ona egin zuen. Jende ugari bildu zen bertako kontzertu eta girora. Ikaragarritzko jende pila bildu ginen bertan, ondo pasatu eta giroa alaitzeko. Bertara, herriko gazteez gain, kanpotar ugari bildu zen.
Baina, beno, hau preparatzeko besterik ez

da izan, orain Pazkuak baitatoz, eta hauek bai direla benetako jaiak. Hau da amets guztiak betetzeko garaia, ondo pasatzeko eta bakoitzak nahi duena egiteko.
Iritsi dira, hemen daude! Denok itxaroten dugu Bitorianatxo jeisten den une ederra. Herri osoa plazan bildurik, gora begira, Bitorianatxoren zain. Bai momentu ederra! Txarrena urtean behin gertatzen dela. Baina, beno, aprobetxatu eta hemen ditugu zorakeriarako bost egun. Nork ez ditu herriko jaiak maite? Nork ez ditu urte guztian bost egun hauek itxaroten?
Jakina da, halaber, herritar guztiak ez direla bertan gelditzen, kanpora



Jaiak jaiak dira eta kanpora ateratzeko beste egun batzuk badaude. Beraz, ondo pasatzera, urtean behin dira eta.

ateratzen direla, jai egun hauek aprobetxuz. Ez da ideia txarra jaiak maite ez dituztenentzat. Guk behintzat hartuta daukagu erabakia, jaiak jaiak dira eta kanpora ateratzeko beste egun batzuk

badaude. Beraz, ondo pasatzera, urtean behin dira eta!
Gure partez, ondo pasau Bergarako Jaixak!!

INSTITUTOKO TALDE BAT.

IPINTZA INSTITUTOA

14. ZENBAKIA

ARRAZAKERIA EZ DA MODA BAT

Bada makina bat jende mundu honetan koloreak aintzakotzat dituena.

Arrazakeriaren gaia ez da gaur egungo "moda" bat, badira mende asko arazoa kalean ikusiz bizi garela. Gai honen inguruan informazio eza nabari da eta gazteok ere zerbait egin dezakegulakoan gaude. Zentruetan gai honi buruzko jarrera pasiboa somatzen dugu eta idatzi honen bitartez gure ahotsaren oihartzunak beste zentruetarako jendea arazo honetaz jabetzeko balio izatea espero dugu.

arrazakeria

Honekin batera gogorarazi nahi dugu arazo honen aurka borrokatzeagatik eta arrazen arteko berdintasuna defendatzeagatik hil diren hainbat eta hainbat pertsona, horien artean: MALCOM X, MARTIN LUTHER KING....

Sinestezina da mundu honetan dagoen egoera ikusirik jendearen pasibotasuna arazo hauekiko. Non ditugu askotan erabiltzen ditugun hitz gogorrak?

Ez al gara gai "Nahikoa da" esateko?

Ez ahaztu, elkarrekin emandako pausoak aurrera-pausuak dira beti.

KOLORE BIZIAK

NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

Epa! Hemen gaude berriz ere, badakizue, beti txapadia sartzen ari zaizuen taldea. Gaurkoan ez zitzaigunez beste ezeri buruz idazteko burutapenik etortzen, jaiei buruz idaztea erabaki dugu. Badakizue hainbat egunetan jendea zoruarena egiten eta ondo pasatzen aritzen den garai hori. eta honetaz gain bi orri bete beharrean aurkitzen garenez, beste edozeri buruz ere hitzegingo dizuegu.

Adibidez, azkenengo asteetan horrenbeste aldiz entzun dugun "Nesken futbito Txapelketari" buruz. Beno egia esan bi txapelketa dira, bat herri olimpiadetako jendeak antolatu duena eta bestea Deba Garaiko herriendako antolatutakoa. Bergaran antza denez eragin txiki izan du, txikia, baina azken finean eragina. Hiru bat talde sortu bait dira. Hori bai, gehien bat gaur egun Bergarako nesken futbol taldean daudenen artean atera dira. Beno!. Zuek badakizue zer egin behar duzuen animatzera joan . Oso interesgarria izango bait da, Bergarako nesken futbol taldetik irtendako taldeak jokatzeko ikustea.

Oharra: "Masajista beharrean daude" (Bereziki mutil lerden eta guapo bat). Ohar hau alias Zamoranoren partez da.

Ah! Alias Zamorano nor den ez dakizuenentzako eta jakin minez zaudetenontzako, hurbildu zaitetzeko jokatu behar diren partiduetara.

INSTITUTOKO NESKA TALDE BAT


Zein musika instrumentu gustatuko litzaizuke jotzen jakitea?



Gema Otaño

19 urte, ikaslea

Pianoa. Gustatuko litzaidake eta pena hori daukat. Orain, berriz, berandu dela uste dut...



Igor Lete

21 urte, ikaslea


Bateria beharbada baina ez dut musikarako balio. Txikitan txirula ikasten jardun nuen eta oso txarra nintzen.



Olatz Manuel

12 urte, ikaslea

Pianoa baina oso zaila da. Ez daukat denborarik. Eskubaloian jokutzen dut eta...



Marcos Labaien

60 urte, langilea

Soinua, ahoko-soinua jotzen dut inoiz. Lagunekin edota asteko edozein egunetan. Zarata ateratzen behintzat badakit...



Marisabel Urtaza

46 urte, etxeoandra

Akordeoa oso polita da. Orain ikasi? Berandu sekula ez da baina ez daukat asmorik.



Xabier Mujika

30 urte, langilea

Bateria. Erabili dudan instrumento bakarra da eta asko gustatzen zait. Gogoia neukan ikasteko baina denbora behar da.



Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hortz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B
Tf. (943) 76 38 54

ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea
Tf. (943) 79 73 88

ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.
Tf. (943) 72 46 47



Bakoitzai beria, betetzen ez dan legia

Nafarruatik Bergarara faxez ailegatzen den baten kronika laburra.

Maiatzak 7, sapatua: Espainiako itzulia Euskalerrian. Luis Erroldan ihesi, Mariano Errubio kartzelan... kaka zaharra inguruan. "Quinto levanta tira de la manta..." kantatu nahi eztabenak atxilotu. Manta hori astindu ta garbittu bihar dabenak, berriz, ixilik, diru gosiai ezin eutsiz.

Maiatzak 8, domekia: Herri-Urrats Senperen. Bera herritik aurrera Lizuniaga portura. Bertan dan-dana da berde-berdia. Baitta "mugako" gizon gazte batzuen jantzia pe. Betiko trabak. Lagun batek "Baietz Erroldanen bila jardun". Apostua eña dau. Azalpen ofizialen zain geratu ga.

Maiatzak 9, astelehena: Iturri ofizialak ezer argitu ez. Atzo 0-0 ta denontzat salda bero. Aurten Nafarruan eztau futbolaz berba eitterik, "osasun" gutxi nagusi.

Maiatzak 10, martitzena: eguzki eklipsia zazpiretan. Ingurumarian daukaun panoramia ikusitta hobe dou usteldutako handikixak Pikullittara bidaltzia ta eklipsiakin gozatzia. Oraintxe daukau aukeria, gero buruai hazka eittia alperra izango da ta.

Asis IRIONDO



Artzaiak gora, prezioak behera

Artzaiak urteroko martxa hartu du. Ibiltaria da. Beheko lautadak nahiz maldak laga eta tramankulo guztiak, apurrak hartu eta badoa, Urbiara, Ugastegira, Goibeirara... badoa baina beti gora.

Neguko egun gordinak igaro ondoren, amets duen goiko zelai eta esparruetara joko du. Negu partean eguraldiaren gordintasun eza ezik, belardi antzuak, zaintzeko dauden zeliak, gose diren esparruak. Behelaldean errepideak ugari, baso bideak asfaltaturik daude, erosotasuna inoiz baino oparagoa baina, lurra, ama lurra, inoiz baino abandonatuagoa.

Simaurrik, satsik ez zaio barreiatzen, ongarririk ez. Gosea. Hori da kontrastea. Artzaia berrero badoa mendira eta zenbat gorago hoba. Belar fina eta gozoa hantxe dago. Esnean nahiz gaztan nabari izaten da.

Arkuma sasoia igaro da. Lan asko, lanpeturik izan da. Arkumea aipatu dugunez, ozenki esan behar da, lurjota izan dela bere prezioa. 70 durotik ez da pasatu. hau da hau mesprezioa. Bertako haragia, ez hormonarik ez bestelakorik. Haragi birjina. Halere lurpean. "Hemen, bertakoa kontsumitu behar da" dio propagandak. Adibideak alboan ditugu. Artilea sutara bota behar. Sakutan sartzerik ez du merezi, garestiago baita. Gero eta artzai gutxiago. Zorionez, ardi, artalde gehiago. Artzaia badoa gora, zenbat eta gorago hobe. Besterik ezean, goian ezer gutxi baina ametsa eta gozama. behean tristura, nahigabea.

Andres OSA "Sakona"

**MARGO
ERAKUSKETA**

Gorka Gonzalez Sañudo

BASALOREAK

NAHIKARI
Taberna

Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

FS  **loto sistema** *APBéniz*

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Ramon Maria Loiti Mankomunitateko presidentea, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea, Eli Galdos Diputatu Nagusia, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Roman Sodupe Garraio eta Azpiegitura diputatua, besteak beste.

Epele-Kanpazar zabalik

Astelehen eguerdian inauguratu zen Epele eta Kanpazar arteko errepidea. Kamino zati hau Beasain eta Durango arteko korredorearen barruan sartzen da eta 4.630 m.ko luzera dauka. Bataz besteko aldapa endientea % 4koa da eta haundiena %6koa. Era berean, ibilgailu motelentzako, igoeran, karril gehigarri bat dago. Construcciones Mariezcurrena enpresak 17 hilabetetan burutu ditu lanak 1.500 milioi pta.ko aurrekontuarekin eta errepideak egunean 6.000-7.000 ibilgailu jasotzea espero da. Tramu honen hurrengo eta behinbetiko fasea Bizkaiko Diputazioaren esku geratzen da.

Karril berria

Bergarako bariantean, Beheko Estazioan, 3. karril bat egingo da herri barrura sartu behar duten ibilgailuentzat. Diputazioak 40 milioi pezeta gastatuko ditu Beheko Estazioan egoten diren arazoak gutxitu asmoz eta obrak aurten egitea espero da. Udalak, dena den, beste zenbait hobekuntza egiteko eskakizuna ere egin dio Diputazioari.



Sahiesbidean, Beheko Estazio inguruan, 3. karril bat egingo da.

BERGARA
Karrozeria
 Txapa - Pintura
 Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31

Zatoia
 Boutique
 Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

Aldoka
Maldoka
TABERNA
 Kruz Gallastegi, BERGARA



Pedro Guallarren kontzertua Areetan

Pedro Guallar organista bergararrak barroko musikaren kontzertu bat emango du astelehenean 19.30etan Areetako Mercedestarren Elizan eta Bilboko Orkestako Metal Boskotearekin batera. Kultura Ministeritzak utzitako organoa da Areetakoa eta bertan egiten ari den "Udaberriko Kontzertu Zikloa"ren barruan kokatzen da asteleheneko emanaldia. Martxoan Euskadiko Orkestak Miramonen duen egoitzan ere jo zuen Pedrok. Bergaran kontzerturik emango duen galdetu diogunean, zera erantzun digu: *"gogo baundia daukat San Pedroko organo romantiko-sinfonikoak maila izugarria bait dauka"*.

San Migel Monte

100 bat lagun bildu ziren joan zen larunbatean San Migel Monte eguna ospatzeko. Arratsaldeko 7etan Angiozarko San Migel ermittan meza entzun ondoren, luntxa banatu zen bildutakoen artean eta ondoren, gabeko 9ak aldera, afaria izan zuten **Kanpazarreko jatetxean**. Eta afalostean, erromeria... Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina jaigiroa aparta izan zen.



Meza ostean luntxa, eta gero afaria izan zuten biildutakoek.

Zertan dibardute ba?



Koldo Lasa bergarar sukaldariak Miarritzen izan den Euskal Gastronomiako Kongresu Mundialean parte hartu du. Baionako Merkataritza Ganbarak eta Gastronomiako Euskal Kofradiak antolatuta, euskal sukaldaritza ezagutzera eman nahi izan da, hemengo produktuen (ardoak, arrainak edota gaztak) erakusketa, antzinako platerekin egindako banketeak, pastel dastaketa edota emandako hitzaldien bitartez. Guztira 40 sukaldari izan dira bertan eta Hotel Du Palaisen emandako afari nagusian 216 lagun inguru izan ziren. Koldo Lasa beraren hitzetan *"esperientzia guztiz positiboa"* izan da.

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
 Kafea da gure berezitasuna
 Zubieta 26, BERGARA


EDURNE
Merzeria - Lenzeria
 D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

TENERIFERA!!
 Bolu Gimnasioan hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.
ZATOZ !!

Jose Mari Gabilondo

Jose Mari Gabilondo 47 urteko bergararrak 8 bat urte daramatza Lokatza Ziklismo Eskolan. Infantilen taldeko arduraduna, urte hauetan hainbat karreratako ("kontaezinak" bere hitzetan) antolatzailerik lanetan ikusi dugu.

- Bizikletarik badaukazu?
- Bai, *Contini* bat orain 5 urtetik.
- Eta ibiltzen zara?
- Pixka bat, astia daukadanean.
- Klasikarik gogokoena?
- Paris-Roubaix.
- Historiako ziklistarik onena?
- Eddy Merckx.
- Eta gregariorik onena?
- Arsenio González (Clas).
- Sprinterrak ala eskaladoreak?
- Eskaladoreak.
- Adibidez?
- Nahiz eta *loroñistia* izan, Bahamontes.
- Puertorik gogorrena?
- Arrate.
- Lokatzak izan duen ziklistarik onena?
- Ricardo Iturbe.
- Euskadi Fundazioko bazkide?
- Ez.



"Nere ustez historiako ziklistarik onena Merckx izan da; loroñistia izan naiz beti baina Bahamontes eskaladore hobia zen. Indurainek irabaziko du Tourra. Superstizioso naiz. Bergaran kiroldegi bat botatzen dut faltan"

- Zarrabeitiak 2. postuari eutsiko dio?
- Bai.
- Eta Tourra norentzat?
- Indurainentzat.
- Txisteak kontatu ala entzun?
- Entzun.
- Athletica UEFAn sartzearen alde?
- Bai.
- Auzoko jaiak ala Pazkuak?
- Pazkuak.
- Txikiteorik egiten duzu?
- Orain gutxi.
- Urtebetetzeen fetxak gogoratzen dituzu?
- Normalean ez.
- Andreari egindako azken oparia.
- Gaur bertan (maiatzak 10): lora batzuk eta kanario bat, bere eguna zen eta.
- Zer falta da Bergaran?
- Kiroldegi on bat Agorrosinen.
- Azkenaldian gehien inpresionatu zaituen notizia.
- Sennaren heriotza.
- Superstiziorik?
- Bai, 13a ez zait gustatzen.
- Nork esnatzen zaitu?
- Ni neu, despertadoriak.
- Semeei etxeratzeko ordua jartzen diezu?
- Aspaldian ez.
- Non dago Roldán?
- Madrilen. Felipitokin igual...

ESPOLOIAN...




ALDASORO

ZAPATAK, POLTSAK eta ANTEZKO ARROPAK

**MOMENTUERO NOBEDADEAK JASOTZEN DIHARDUGU,
ZURI ESKAINTZA ZABALAGOA EGITEKO**

ALDASORO, BEDELKARreko kidea da.






umelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

MAITE FERNANDEZ

Aurreko Galde Debalden momentu honetan Azoka Plazan zenbat salmenta postu fijo dauden galdetzen genuen. 9 dira guztira.

MAITE FERNANDEZek jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **ARGAZKI**ek emandako sari bikaina.

Zorionak **MAITE**ri eta besteok segi jokatzeko, ea hurrengo suerte gehiago duzuen.

SANTOS
IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua,
elektragailuak, antenak, sukaldeak
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA
Tfnoa eta faxa: 76 26 10



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



MAITE FERNANDEZek jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.



SANTOS IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua,
elektragarailuak, antenak, sukaldeak
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA

Hurrengo Galde Debaldeko saria
SANTOSEk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Don Serafin Esnaola, Bergaran hainbat urte eman zituen apaiz donostiarra, albiste iturri izan genuen orain dela gutxi. Beldarrain apaizarekin elkarlanean, 1940 eta 1968 bitartean euskal apaizgoak mantentzen zuen jarrera azaltzen duen liburua argitaratu dute. Bertan Francoren diktadura garaian idatzitako dokumentoak aurki daitezke. Lan guzti horren emaitza, bi tomatan, Euskal Herriko liburudendatan ikus dezakegu.

Zein da Don Serafinek eta Beldarrainek idatzitako liburuaren izenburua?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari gongo lirateke

1. maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	Golak alde	Golak aurka
1. Madura IND. GOL	36	19	17	2	0	90	25
2. Errotagain	29	19	14	1	4	86	37
3. Tokieder	27	19	12	3	4	101	40
4. Angiozar	27	19	12	3	4	93	53
5. Usoa	23	19	9	5	5	65	47
6. Bar Canalejas	22	19	9	4	6	62	57
7. Arloteak	21	19	9	3	7	53	56
8. Bildurbarek LAM	20	19	11	0	8	86	79
9. Os Jardineiros	18	19	7	4	8	72	83
10. Mongatxurra	18	19	9	1	9	71	59
11. Ogizun	17	19	7	3	9	80	64
12. Guadalest	16	19	6	4	9	45	70
13. Akort Ariznoa	16	19	7	2	10	57	86
14. Ezinleike	16	19	6	4	9	50	80
15. OH Zerezos	16	19	7	3	9	57	76
16. Nahikari Hool.	14	19	5	4	10	45	56
17. Kriterium	12	19	5	4	10	48	63
18. Shaktale	10	19	4	2	13	46	104
19. Kriston Potruak	9	19	4	2	13	68	105
20. Soropotroak	8	19	4	0	15	51	80

emaitzak

Mongatxurra	36	Os Jardineiros
Arloteak	20	Shaktale
Errotagain	14	Kriterium
Madura	40	Bar Canalejas
Bildurbarek LAM	65	Ogizun Okind.
Akort Ariznoa	21	Nahikari Hool.
Tokieder	51	Angiozar


hurrengo partiduak: play-offak

• IGANDEA •
barruan

16.30: Arloteak-Mongatxurra

17.30: Bar Canalejas-Ogizun

18.30: Bildurbarek LAM-Os Jardineiros.



igoera-jeitsiera fasea

Akort Ariznoa-Uve Bikoitza
Ezinleike-Etxagi
OH Zerezos-Hartu Zamak
Nahikari Hooligans-Ufala

PARTIDUAK PAZKUEN ONDORENGO
ASTEBUKAERAN JOKATUKO DIRA.

mailaz igo eta jeisten direnak

1. mailara igotzen dutenak: 2. mailara jeisten dutenak:

ARKUPE
KALIMOTXO
REVIENTA
OZAETA

KRITERIUM
SHAKTALE
KRISTON POTRUAK
SOROPOTROAK

Txinpartak

▼ Azken momentuan, eta denbora falta dela medio, joan zen aste-bukaeran hastekoa zen kopa txapelketa bertan behera uztea erabaki zuen Antolaketa Batzordeak. Horrela, bada, joan zen astebukerara iragarrita zeuden partiduak ez ziren jokatu.

▼ Horrela gauzak, txapelketa lortzeko play-offak eta igoera-jeitsiera fasea jokatuko dira hurrengo astebukeretan. Igande honetan play-offerako lehen partiduak jokatuko dira eta jai ostean, berriz, igoera-jeitsiera faseko partiduak eta txapelketarakoak jokatuko dira.

▼ Beraz, gauzak bide honetik badoaz ekainaren erdialderako jokatuko dira azken partiduak eta orduan jakingo dugu zein izango den aurtengo futbito txapelketako irabazlea.

▼ Ondoren, eta azken urteetan egin den moduan Ipintzako futbol txapelketa jokatuko da seguruen. Horren berri ez daukagu oraindik baina espero dugu, aurreko edizioetan izandako harrera onaren ondoren, aurten ere antolatuko dela.

golegilerik onenak

1. maila



Fernando SALINERO
54 GOL

2. maila



Igor AGIRREZABLAL
66 GOL

1. maila



Miguel Angel CENZUAL
23 GOL

2. maila



Aitor REMENTERIA
52 GOL

Espainiako karate txapelketako buruan

Iker González, Jaime Martín eta Gorka González Badalonan bikain

Iker González, Jaime Martín eta Gorka González bergararrek Espainiako Kyokushin Kai karate txapelketan izan dira Badalonan. Iker (12 urte) eta Gorka (14) beren kategoriako 3. eta 5. postuetan geratu dira katetan (aurrez programatutako mugimenduak) eta Jaimek (12 urte), berriz, hirugarren postua eskuratu zuen *clicker* (kolperik gabe, puntuka erabakitzen den) konbatea izeneko kategorian.

Hirurek ere astean hiru egunez entrenatzen dute Bolu Gimnasioan Carlos eta Aitor Albisua anaien agindutara. Beren hitzetan, "arbitroek ez ziguten mesede haundiegirik egin, bestela lehen postuak lortzeko ere aukera edukiko genukeen. Baina, bueno, pozik egoteko motiboak baditugu. Kontutan izan Estatu osoko 50 bat gaztetxo izan zirela eta lehen postuetan sartzea ez dela

batere erreza izaten. Azken batean, "zona norte"koak (Madriletik gora) beti ere hobeak dira eta neurri batetan espero genituen lortutako emaitzak, sailkapena lortu genuenetik. Guztiek ondo entrenatzen dute eta lan borren saria jasotzerik izan dute azkenean".

Guztira, 25 gaztetxo eta beste horrenbeste nagusi ari dira Carlos eta Aitorrekin entrenatzen. "18 urtetik beherakoek, kolpeak eman barik, puntukako konbatetan parte hartzen dute eta nagusiek berriz, K.O.ra jokatzen dute: bankarekin iztarretik bururaino jotzeko aukera dago eta eskuarekin berriz gorpuztean bakarrik. Mutikoek orainarte behintzat afizio haundia erakutsi dute eta etorkizunera begira, horrela jarraitu ezkerro, gauza interesgarriak lor ditzakete". Entrenatzaileek bere aldetik, zinturoi beltzeko biga-



Aitor Albisua, Jaime Martín, Gorka González, Iker González eta Carlos Albisua.

ren dana (4 dira guztira) lortzeko ahaleginetan dira eta horretarako hainbat ikastarotan ari dira parte hartzen.

Karateka guzti hauen

maila ikusteko aukera izango da maiatzaren 29an, goizetik, Labegarietako Kiroldegian egingo den aerobic eta karate erakustaldian.

Katetan eta clicker izeneko kategorietan trofeo bana eskuratu dute

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Lagun Onak

Preferente maila.

Igandea, 17.00, Agorrosin.

SASKIBALOIA

Aranzadi-Salleko

Jubenil mutilak

Larunbata, 10.30,

Aranzadi Ikastolako patioan

(poligonoan)

ESKUBALOIA

Aste honetan ez da eskubalo partidurik jokatu Bergaran.

NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

• Sinatuak / Naiara y los 7 Enanitos.

Larunbata, 16.30.

• Notxingan Flores / Hamaikak eta Gutxi.

Larunbata, 17.30. Biak Institutoan.

PELOTA

- Afizionatuak

• Elosuko Otaba Txapelketa.

Igandea, 10.00, Elosuko frontoia.

- Profesionalak:

Aste honetan ez da pelota

jaialdirik antolatuta

Udal Pelotalekuan.

PALA TXAPELKETA

9.00: Otaño eta Martínez /

Arroyo eta Manzanedo.

10.00: Narbaiza eta Madariaga /

Sanz eta Barroeta.

11.00: Azkarate anaiak /

Lizarralde eta Zangitu.

12.00: Garitano eta Lete /

Etxeberría eta Alberdi

GIMNASIA ERRITMIKOA

• Gipuzkoako Eskolarteko

Txapelketa. Larunbata, 11.30etan.

• 3. Pentekoste Saria: Hegoaldeko

lau herrialdeetako 9 talde.

Igandean, 10.30etan. Kiroldegian.

Atletismo txapelketara

Larunbatean, maiatzak 14, apirilaren 30ean hasi zen **Gipuzkoako Atletismo Txapelketa** bukatuko da eta Bergaratik honako neska-mutil hauek izango dira: Lorea Garcia (600 m. eta pisu jaurtiketa), Ainhize Gomez (600 m.), Eva Lamas (600 m.), Nerea Martin (3.000 m.), Maite Aizpiri (150 m. eta 80 m. hesietan), Lierni Lázaro (80 m. hesietan), Jon Mendizabal (100 m. hesiak, altuera, 150 m. eta luzera jauzia) eta Mainer Azkargorta (pisu jaurtiketa).

Arrantza lehiaketa

Herri mailako arrantza lehiaketa jokatuko da Angiozar errekan datorren ekainaren 6an. Bertan parte hartu nahi dutenek Ollagorra elkartearen eman dezaketa izena datorren asteazkena (maiatzak 18) baino lehen. Parte hartzeko beharrezkoa izango da aurtengo arrantza baimena izatea. Izen-ematea doan izango dute 14 urtetik beherakoek eta 500 pzt. ordaindu beharko dute gainontzekoek.

Igeriketa ikastaroak Agorrosinen datorren astetik aurrera

Udal Kirol Zerbitzuak bazkideentzako igeri ikastaroak antolatu ditu. 3 eta 4 urteko umeentzat 10 klaseko ikastaroak izango dira 18.30etatik 19.15etara eta bi maila izango dira: hasierakoak astelehen eta asteazkenean (maiatzaren 16tik ekainaren 20ra) eta hobekuntzakoak astearte eta ostegunetan (maiatzaren 17tik ekainaren 21era).

Ikastaro arruntak, berriaz, 20 klasekoak izango dira eta prezioak honako hauek dira: 5.100 pta. 18 urteartekoentzat, 6.400 18 urtetik gorakoentzat eta 1.750 langabetu, jubilatatu eta etxeakoandreenentzat, maiatzaren 18tik ekainaren 16ra. Ordute-gia: 7.00-7.45, 15.30-

16.15, 16.15-17.00, 17.00-17.45 eta 17.45-18.30.

Bestalde, entrenamendu eta muskulazio programaren barne, Igerilekuko gimnasioan plangintza pertsonalak

egiten dira 3.000 pta. ren truke. Bazkide izatea derrigorrezkoa da.

Hauetako ikastaroren batean parte hartu nahi duenak, Kirol Zerbitzura (Irizar Etxea) jo dezake.



Adin guztietakoek parte hartu ahal izango dute ikastaroetan.

KIROL EMAITZAK

FUTBOLA

- Prefente maila: **Danak 0-Bergara 1**
- Lehen Erregionala: **Bergara 1-Haizea 1**
- Lehen mailako jubenila: **Bergara 5-Urki 0**
- 2. mailako jubenila: **Bergara 1-Zumaiako 0**
- Lehen mailako kadetea: **Bergara 5-Arrasate 0**
- 2. mailako kadetea: **Bergara 4-Urola 1**
- Lehen mailako infantila **Aretxabaleta 1-Bergara 1**

ESKUBALOIA

- Senior mutilak: **Vitoria 17-Bergara 17**
- Kadete mutilak: **Bergara 15-Elgoibar 15**
- Junbenil neskak: **Bergara 12-Pulpo 14**
- Kadete neskak: **Urnieta 8-Bergara 14**

SASKIBALOIA

- Jubenil mutilak: **Bergara 56-Andraitz 45**
- Infantil mutilak: **Ordizia 56-Aranzadi 31**

NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

Bulldogs 7-Hamaikak... 1

PELOTA

- Herri Arteko Txapelketa
- Infantilak: **Bergara 2-Idiazabal 18**
- Jubenilak: **Bergara 22-Idiazabal 17**
- Seniorrak: **Bergara 22-Idiazabal 13**

YAZKI

UME GAZTE
Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
☎ 76 16 54 ☎ 76 54 73

MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3
☎ 76 10 34

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

LIZAR



altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53



Institutoko ikasleak

Hara hor gitarrista bere fansez inguratuta, nahiz eta bakarren bat lotsatuta dagoela ere badirudien. Santo Tomas egunez ateratako argazkia da, 1981.ekoa.

Ezkerretik eskumara:

Makurtuta: Roman Unamuno "Txipi", Ana Unamuno, Izaskun Gallastegi, Blanki Anduaga, Mikel Laskurain, Alazne Irazabal, Marije Iturbe, Xabier Berasategi, Goretti Andrinua eta Judith Alzola.

Zutik: Nerea Larrañaga, Eli Payros, Irune Urbina, Esther Etxaniz, Arantzazu Larrañaga, Juan Inazio Etxaniz, Ines Rajado, Miren Uribesalgo, Enrike Elkoroberezibar eta Alex Labaien.

Estepan Plazaola. Argazkia: Imanol Iriagarai.

Mujika
Jantzidenda
 Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

BOLINTXO
*Kirola egiteko
 behar den guztia*
 Ibargarai 10,
 ☎ 76 38 32

LAZKANO
Oinetakoak
 Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
 BERGARA

anezka
**Udazkenerako oihalak
 eta lenzeria**
 Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

FERNANDEZ

**Oihal puskak
 Oihalak**
 San Antonio, 3 Ibargarai, 2
 ☎ 76 22 93 ☎ 76 53 22


 Irizar, 2
 ☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK

ETXEBIZITZA

Pisu amueblatua salgai Zabalotegi 1ean. ☎ 76 32 27.

Garajea salgai Santa Marinaran. ☎ 76 34 31.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea (bi plaza) salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 52 55.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

Pisua alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Pisu amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

Etxea salgai Martokan. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Baserri bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 31 49.

DENETARIK

Yamaha 600 motorra salgai. SS-4. 300.000 pzta. ☎ 76 49 43 / 17 64.

Kotxearen **irritati-kaseta** salgai (bi baffle). ☎ 76 37 29 (Martin).

Remolke-denda "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Errepiderako **bizikleta** (Vitus koadroa) salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 29.

Paseozko **Torrot bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Enkuadernatzeko **prensa** erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

BX-16 TRS kotxea salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

Montesa Cota 335 (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Bilbon pisua konpartitzeko norbait behar da. ☎ 76 61 68 (1-2, 7.8.30).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Alfa Romeo 33 SS-AB **kotxea** salgai. ☎ 76 02 01.

Erabili gabeko **Dr. Martens** beltzak salgai. 38/5 zenbakia. ☎ 76 37 82.

Macintosh ordenagailu bat erosiko nuke (classic). ☎ (94) 658 27 72.

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Game-boy bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

LANA

Makinaz edo ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 21 33 (Garbiñe).

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta **ingeles klaseak** (maila guztiak). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak eman-go lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingeleseko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak. ☎ 76 50 67.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Haurrak zaindu edota **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 26 73.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke (esperientzia). ☎ 76 25 81 (Leire).

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Hildakoak

Consuelo Ruiz de Azua Gaztainondo

maiatzak 6, 64 urte

José Martínez Galván

maiatzak 7, 75 urte

Margarita Albizu Oiarzabal

maiatzak 7, 91 urte

Samiba Abdul Halin maiatzak 8, 44 urte

María Aranzabal Guridi

maiatzak 11, 85 urte

Jaiotakoak

Asier Mellado Garcia-Gil

maiatzak 2

Patxi Ugalde Prieto

maiatzak 6

Mikel Retolaza Coranti

maiatzak 6

Atsedeen zentrua
LOKARTU

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 **BERGARA**

ZUBIETA
elektragarintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu osoo

a, eme... interiores



210.500
Pta

a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE